

## PRENTSA-OHARRA



### **Azkuna Zentroak Allora & Calzadilla: KLIMA erakusketa aurkeztuko du**

#### **ALLORA & CALZADILLA: KLIMA**

**Non:** Azkuna Zentroko Erakusketa Aretoa  
**Noiz:** 2024ko ekainak 20tik, 2025eko urtarrilak 6ra  
**Sarrera dohainik**

Bilbo, 2024ko maiatzaren 28an.- Ekainaren 20an, Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbao. Bilboko Udalaren Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak *Allora & Calzadilla: KLIMA* aurkeztuko du. Erakusketak ikusgai jarriko du nazioarteko arte garaikidearen erreferente diren Allora & Calzadilla [Jennifer Allora (1974, AEB) eta Guillermo Calzadilla (1971, Kuba)] artista bisualen bikote kolaboratiboaren lan berria.

Bi hamarkadatan, Jennifer Allorak eta Guillermo Calzadillak eskultura, performancea, bideoa, audioa eta fotografia uztartzen dituen lan esperimentalak ondu dute, eta mundu osoko museoetan egon da ikusgai. Ikerketara bideratutako praktika konplexu batetik abiatuta, Puerto Ricon bizi den bikote honek modu kritikoan aztertzen ditu gertaera kulturalaren, historikoaren eta geopolitikoaren arteko elkarguneak eta konplizitateak.

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko zuzendari Fernando Pérez da erakusketaren komisarioa. Honako hau bikote artistikoak Bilbon egindako lehen bakarkako erakusketa da, eta jarraipena ematen dio Zentroaren erakusketa-ildoari, klimaren eta ingurumenaren larrialdia jarri nahi baitu agerian artearen bidez, eta gizarteari proposatu nahi baitio bere ekintzen hausnarketa kritikoa egiteko eta portaera jasangarriagoa izateko.

Erakusketaren titulua den “KLIMA” kontzeptua greziarren garaietatik dator, eta bizimoduak eguzkirantz bideratzeari egiten dio erreferentzia. Azken data irekirik duen asmo handiko kronologia honetako lan guztiek horixe jorratzen dute, izaki bizidun guztiek hartzen duten eguzkirako norabidea. Erakusketako artelan bakoitzak klima bakan bat eratzen du, eta denek batera azken 4.000 milioi urteak hartzen dituen elkargune kosmikoari ematen diote forma.

Erakusketa honetan, nabarmentzekoa da, batetik, Allora & Calzadilla artisten jardun diziplinartekoa eta kolaboratiboa eta, bestetik, obra osoan dauden gaiak: denbora geologikoa eta Lurreko bizitzaren bilakaeraren historia, izaera postkoloniala, ingurumen-justizia eta zor klimatikoa, geopolitika eta energia-iturriak.

Erakusketa honetarako proposatutako instalazioek, eskulturek, ikus-entzunezkoek eta soinu-performanceek erronka egiten diete publiko-komunitateei beren esanahia aurkitzeko, irakurketa literal, metaforiko, erakusle eta politiko bat eginez, baina, aldi berean, haietan parte hartzera bultzatzen dituzte, sentsibilitate estetikoareagotzen duen esperientzia gisa hartuta.

### **Erakusketaren ibilbide labur bat**

Erakusketa honetako piezen artean, lanik berrienetako batzuk daude, hala nola *Graft* (2021), birziklatutako polibinilo kloruroz eta pinturaz egindako 17.500 lore dituen instalazioa, gogora ekartzen diguna Karibeko basogabetze sistemikoa eta jatorrizko landarediaren eta faunaren amaiera, suntsipen kolonialaren ondare gisa. *Entelechy* (2020) ere ikusgai dago, tximistak jota eraitsitako zuhaitz batekin moldatutako ikatzezko eskultura monumentala, Montignac-eko basoko (Frantzia) pinu-zurez –*Pinus sylvestris*— sortua, alegia, Lascaux haitzuloa dagoen tokiko zurez.

*Cadastre* (2020) mihise gaineko burdinazko karrakez egindako pieza bat da, eta Allora & Calzadilla bikoteak elektromagnetismoarekin egindako esperimentu artistikoak irudikatzen ditu. Printzipio formalen esplorazioa da, eta, aldi berean, sare energetikoa den lotura konplexuari aurre egiteko modu bat.

Bestalde, erakusketan *Lifespan* (2014) soinu-performancea aktibatuko da. Hala, hiru bokalistak David Langen konposizio bat interpretatuko dute, txistuka eta putz eginez 4.000 milioi urte dituen garai hadearreko arroka-lagin baterantz.

*Penumbra* (2020), eguzkiaren ibilbidearekin sinkronizatuta dagoen eta itzalak dituen animazio digitaleko artelana, erakusketa-gune osoan proiektatuko da. Aimé eta Suzanne Cesaire poeta anticolonialistek, 1941ean naziek okupatutako Frantziatik ihesi joandako artista eta intelektual batzuekin, Martinikako Absalon haranean egindako ibilaldi mitikoetan inspiratuta dago.

Erakusketa honen esparruan, *The Great Silence* (2014) proiektatuko da Auditorioan, Areciboko irrati-teleskopioa eta inguruan duen Río Abajo basoa ardatz dituen bideo bat. Tokia Puerto Rico dago, eta desagertzeko arrisku larrian dagoen Amazona vittata espezieko azken loro-populazioaren bizilekua da.

### **Jennifer Allora eta Guillermo Calzadilla**

1995ean elkarlanean hasi zirenetik, Allora & Calzadilla artistek bakarkako erakusketak aurkeztu dituzte munduko museorik garrantzitsuenetako batzuetan, hala nola New Yorkeko Arte Modernoko Museoan, Portoko Serralves Museoan, Berlingo Neue Nationalgalerie-n, Houstoneko Menil Collection-en, Londresko Serpentine Gallery-n, Turingo Castello de Rivoli Museo d'Arte Contemporanea zentroan, Minneapolisko Walker Art Center-en, Erromako MAXXI-n, Bilboko Guggenheim Museoan eta Amsterdameko Stedelijk Museum-en.

2011n Amerikako Estatu Batuak ordezkatu zituzten Veneziako Bienalaren Nazioarteko 54. arte-erakusketan, asmo handiko proiektu batekin: Glória, Estatu Batuetako nazionalismo politiko, kultural eta ekonomikoan gainjartzen diren narratiben eta sinboloen kritika performatiboa. 2015ean, Puerto Rican *Light* (Cueva Vientos) *site-specific* instalazioa egin zuten, Dia Art Foundation-ek Puerto Ricoko hegoaldeko itsasaldean egindako enkargua.

Partner:

**GIROA**  **VEOLIA**

Laguntzailea:

**LISSON GALLERY**

**SERRAVES**

**GALERIE  
CHANTAL CROUSEL**



### **Informazio gehiago, irudiak eta elkarrizketak**

Maidier Olano

[prentsa@azkunazentroa.eus](mailto:prentsa@azkunazentroa.eus)

Tels. +34 648 773 373